


BIZITEGI ERAIKINA
C MAILA**MIRAMAR 2**

Egilea eta data: Matias Arteaga, 1881

Deskribapena

Mehelin arteko bi etxe berdin, fatxada berak elkartzen dituenak (2 eta 3 zenbakiak). Behe oina, bost goi oin eta jasotako bi solairu dituzte. Fatxadarekin lerrokatutako bosgarren oina, atzeraemandako seigarrena eta bobeda azpiko zazpigarren solairua XX. mendearen amaiera aldeko zabalkuntza baten ondorio dira. Atariak fatxadaren muturretan daude eta eskaileragune bakoitzak etxebizitza bakarrerako sarbidea du oineko. Etxebizitzak sakonera osoan garatzen dira etxadi patioraino, eta bi etxeek mehelin patio bakarra partekatzen dute. Fatxada jatorrizko baoen konposizio neoklasikoagatik nabarmentzen da. Baoket bakoitzak dituzte, solairu batzuetan bateraturik, eta horien mentsulek itzalen efektu bat gehitzen dute, forjen xehetasunek ematen duten dekorazioaz gainera. Bao guztiak lotzen dituen lerroetan eta zerrendetan deskonposatutako harlandua nabarmentzen da, bai eta fatxadak jatorrian izango lukeen irudia behe oineko arkuteria osoarekin (gaur egun aldatuta dago). Jatorrizko lau goi oinen begiratokiak ere ondoren gehitu zituzten, 1884an eta 1918an; baina, hormigoi armatuz eginak dira.

Babes erregimena

- 1.- Babes erregimen orokorra:
 - Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
 - Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.
- 2.- Berarizko babes erregimena:
 - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: jasodurak.
 - B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: harrizko harlandua.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: Miramar 3rekin batera osatzen duen esku hartze unitatean sartzearekin lotutakoak.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzek: hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari lotuak, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.